

HAMAIKAGARREN ORDENANTZA FISKALA

UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIKO TASA.

I.- IZAERA ETA ARRAZOIA.

1. Artikulua.-

Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzearen gaineko Tasa dauka ezarrita, eta hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

2. Artikulua.-

Tasa honek Udal Hilerriko zerbitzuak eskaintzeari dagokion zergapeko egitatea zergapetzen du, honako hauek bezala:

- a) Ehorzketa eta lekualdatzeak
- b) Ehorzketa partikularretarako lursail-partzelen lagapena, (ormaune eta hezurtokiak barne direla).
- c) Hilerriko funtzionarioek eskainitako zerbitzuak.
- d) Hala nola, hildakoen Sanitatea zaintzeko Poliziaren Erregelamenduan aurrikusitakoaren arabera egoki izan daitekeen beste edozein, edo alderdi baten eskariz baimentzen direnak.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.-

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, lagapenaren baimena edo zerbitzu- eskaintzearen eskaria egin dutenak, eta bere kasuan, baimenaren jabe diren titularrak.

IV. ARDURADUNAK.

4. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauak aipatutako pertsona fisiko eta juridikoez, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna iznago dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoez, bai porroterako, lehiaketarako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arauean adierazitako kasu eta eskumenetan.

V. SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK.

5. Artikulua.-

Eskainitako zerbitzuak salbuetsirik egongo dira kasu hauetan:

- a) Baliabide ekonomikorik ez duten onuradunek, hala ere horretarako, aurretik eskaria egin beharko da, eta udaleko gizarte zerbitzuek aldeko txostena egin beharko dute.
- b) Udalerrian hildako gorpuen ehorzketa, baldin eta horien helbidea ezezaguna izan, eta baliabide ekonomikorik ez balute.

- c) Agintari Judizialek agindu ditzaketen ehorzketak.

VI. ZERGAREN KUOTA.

6. Artikulua.-

Zergaren tasa, hurrengo Tarifaren arabera izango da:

TARIFA

TARIFA	
1.- ALDE BATEK ESKATUTA EHORZTEKO ETA/EDO HEZURRAK ATERATZEKO ESKUBIDEA (errautsak barne), betiere legezko epe sanitarioa igaro bada.	
A) Panteoietan	77,90
B) Hilobietan	37,80
C) Nitxoetan	
C.1) 4 puntutan finkatutako nitxoan	27,90
C.2) Beirazko arasa edo kristalezko plaka duen nitxoan	94,50
D) Errautsak lurperatzea	
D.1) Kristalaren gibelego nitxoan	
D.2) 4 puntutan finkatutako nitxoan	27,90
D.3) Plakaren gibelego nitxoan	94,50
D.4) Panteoian, itxituraz hornituriko apalean	77,90
D.5) Panteoian, apalean	
2.- LAGAPENAK	
A.) PANTEOIETARAKO lurra (m ²).	313,90
B.1) Aldi baterako HILOBIA, 15 urterako	355,00
C.1.a) Banakako lurperatze-NITXOA 15 urtetarako, marmolezko PLAKAREKIN.	575,30
C.1.B) Banakako lurperatze-NITXOA 15 urtetarako, marmolezko PLAKARIK GABE.	500,00
C.2) Zabalera BIKOITZEKO NITXOA ehorzketa indibidualeko, 15 urterako	1.151,60
C.3a) Ehorzketa indibidualeko NITXOA lagatzeko denbora borondatez luzatzea, 10 urtez, gorpuzkiak kontsumituta baldin badaude.	190,90
C.3a) Ehorzketa indibidualeko NITXOA lagatzeko denbora nahitaez luzatzea, 10 urtez, gorpuzkiak kontsumituta EZ baldin badaude.	190,90
C.4a) Ehorzketa indibidualeko zabalera BIKOITZEKO NITXOA lagatzeko denbora borondatez luzatzea, 10 urtez, gorpuzkiak kontsumituta baldin badaude.	384,60
C.3a) Ehorzketa indibidualeko zabalera BIKOITZEKO NITXOA lagatzeko denbora nahitaez luzatzea, 10 urtez, gorpuzkiak kontsumituta EZ baldin badaude.	384,60
D.1.a) Gorpuzki-nitxoa 50 urtetarako.	291,60
D.1.b) Gorpuzki-nitxo handia 50 urtetarako.	391,60
D.3) Gorpuzki handia hartzeko nitxoaren lagapena 12tik 50 urtera luzatzea	36,10
D.4) Gorpuzki txikia hartzeko nitxoaren lagapena 12tik 50 urtera luzatzea	36,10
3.- TRANSMISIOAK	
A) 1. eta 2. MAILAK	26,60
B) BESTE MAILAK	60,10
C) ITZULKETAK:	

99 urterako nitxoaren lagapenen kasuan, titularrak idatziz Udalaren eskura jartzen badu hileta eskubidea, lagapenaren gainerakoari eta, hala badagokio, gorpuzkien egokierari uko eginez, lagapena amaitu arte gelditzen zaizkion urte osoen kopuruaren arabera kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. Zenbateko hori formula hau aplikatuta ondorioztatuko da:

$$T = (P / 99) * N$$

Non:

“T” = Aplikatu beharreko tarifaren zenbatekoa den,

“N” = Lagapena amaitu arte gelditzen diren urte osoen kopurua den.

“P” = 99 urterako nitxoetarako lurra lagatzeagatik tarifaren zenbatekoa den hileta eskubidea itzultzeko eskaera egiten den unean. Hauexek dira zenbatekoak:

C.1) 99 urterako ehorzketa indibidualen nitxo lagatzeagatik	1.260,70
C.2) 99 urterako ehorzketa indibidualen zabalera bikoitzeko nitxo lagatzeagatik	2.522,40
C.3) Panteoietarako lurra lagatzeagatik, m2-ko (egungo titularrari luzatzeko edo lagapen berria egiteko)	313,90
4.- MANIPULAZIOAK (Alde batek eskatuta)	
A) Legezko epe sanitarioa igarotzeagatik	60,10
B) Kontratua iraungitzeagatik	

VII. SORTZAPENA

7. Artikulua.- Zergapetutako zerbitzuen eskaintzari hasiera ematen zaionean sortzen da tasa hau eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa, ondorio horietarako, hasiera, haiek eskatzen direnean ematen zaiola ulertuko da.

VIII. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

8. Artikulua.- Zergari buruzko hauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauean xedatua dagoena hartuko da kontutan.

IX.- XEDAPEN GEHIGARRIA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardurearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorritik, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25ea osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2012ko azaroaren 19ea osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2017ko urriaren 26a osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2018ko urriaren 25ea osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2019ko urriaren 30ea osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2021eko urriaren 28a osoko bilkuran.)
(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2022ko urriaren 27a osoko bilkuran.)